

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zuhaitza, berez, gauza ederra bada, are ederragoa Erriberako paisaje gorrituetan egiten dituen mesedeengatik. Cabanillasko honako hauek zurzuriak direla uste dut (edo "zirela" esan behar nuke?). Itzaltoki, txorileku, begien gozagarri... eta, endemas, ondoko pabilioi zatarron ezkutagarri. Biziko ote dira, Jakoba? Eskerrik asko.

Martin Rezola (Gasteiz).



MARTIN REZOLA

Iepa Martin! Zurzuriok zurzuri piramidalak dira, *Populus alba* "Bolleana" edo *Populus alba* var. *pyramidalis* Bunge.

Behe-behetik adarrak ematen dituzte eta altzifreen tankeran behetik goraino adar eta hostoz jantzitako zuhaitz hestu tenteak izaten dira. Izaten dira, baldin eta bakean uzten badira. Hauei beheko adarrak moztu zizkieten lehen, zauriak hortxe dituzte enborretan, eta orain goiko krimen hori!

Zurzuriak egurra bera du, makala, biguna. Lapatuz egin dizkieten zauri horietan bistan den egurra honez gero usteltzen hasia da. Konturatzerako enborra hustua izango da eta hautsi eta erortzeko gai. Inguruan ibiliko direnentzat arriskua latza.

Nola biziko dira bada, Martin? Justu-justu iraun. Ebro aldeko lurralde erre haietan mesede besterik ez dute egingo, baina ezin ikusi zuhaitza osorik. Ezin eraman gu baino lirainago, galaiago, galantago, zuzenago, ederrago denik. Tentelak zer garen!

26.280

Barraskilo batek 26.280 orduz lo egin dezake. Txoko egokia topatu eta hiru urteko loaldian lasai asko egongo da. Horrelako atsedenaldira hartuta barraskilo arrunt bat hamabost urte bizi daitekeela ulertzea ez da zaila. Zailagoa da bizar-labana baten ertzetik nola arraio ibili daitekeen azaltzea.



ENMISOMBREO.BLOGSPOT.COM

Ipinabartik erriora

IPINABARRENA munduan parerik ez duen kultura da. Mugarroa bai, mugarro modorro edo zuhaitz-motz soila bai, bere erabilera guztiz zabaldua da. Gidatutako, ipinitako abarrak dituzten zuhaitz ipinabarrak, ordea, gurean eta guregandik inguruetara zabaldua besterik ez dut ezagutzen. Leizeetako Madeleine garai-ko margoak eta sarobe edo saroe borobilekin batera, ipinabarrena gure kulturaren gailur garaieneko bat da. Beste kultura batzuen parean nor egiten gaituen horietakoa. Euskaldunon basoarena bezala gure itsasoaren historia, istorioak eta jakintza jaso eta merezi duten tokian jartzen ditugun eguna inoiz erdiesten badugu, egun batez behinik ur gaineko bitsetan ibiltzeko arrazoi sendoa izango dugu: ipinabarra.

Ipiñabar izena duen baserria bada bihozberatzen nauen eta baitan sekulako daramadan Nafarroa Garaiko Aranon. Urrutira gabe Ipiñabarsasi saila... Araitzeko Azkarateko herrian ere ba omen da Ipiñabar izeneko toki bat. Ez dut beste inon topatu ipinabarrari hain hede estuarekin uztarturiko toki izenik. Nafarroan, ipinabarren adar bereziak behar ziren itsasotik bertara. Hain bertara! Aranokoa omen itsasoa bistara duen herri-kasko nafar bakarra. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga inguruko basoetan ipinabar dotoreak topatzea ez da zaila, oraindik zutik, bere bi adar nagusiak, zuzena eta zuokerra, tente, harro asko. Makina bat krakateko entzungo zen garai batean, egurrez lepo zen gurdi motzari tiraka errietoako ontzioletara puntakoarekin jaisten ziren idi pareen tirriki-tarraka. Baso horietako magaletako zehar-zeharreko bideetan gurdien gurpilek eta leren aldeek arrastaren gaineko arrastan higatuz bernuzatutako erretenak ikusi besterik ez dago. Hori bai artea. Hor daude harkaitzari jandako gurdi-bideetan, gure aurrekoen lan ikaragarri haien lekuko, aspaldian isil.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberrí Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberrí@luberrí.biz • www.luberrí.biz